

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gailu elektronikoa duen edozein izango da gure bezeroa, hau da, edozeinentzat, ez dugu bezero konkretu bat edukiko. Hauek, gehienbat nerabeak eta gazteak izango dira, gaur egun gailu elektroniko ugari erabiltzen dituztenak direlako, nahiz eta helduak, 60 bitarte ere izango diren. Denda txikietan eta enpresetan, bezeroak ere izango ditugu.

Bezero gehienak nerabeak eta gazteak izango direnez, produktua erosiko duten asko 12-30 urte bitarteko pertsonak izango dira, nahiz eta 30-60 urtekoek ere asko xamar erosiko duten. Hala ere, lehen esan bezala, denontzat eskuragarri izango da, beraz ez dago adin espezifikorik produktu hau erosteko. Bezero gehienak, gailu elektronikoak asko erabiltzen dituztenak izango dira, lanean edota kalean. Hau esanda, ez dago bezero-segmenturik, edozeinen eskutan egon daitekeelako gure gailua.